

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Haserre

PIRANGIKO HONDARTZAKO Cajueiroa, *Anacardium occidentale*, bere 8.000 m²-ko itzalarekin galanta sentituko da, eta 122 urteko barrea egingo die aldamenekoei. Ez du, ordea, gajoak, kontinente bereko ipar puskan bizi den Pandoko (Utah, AEB) lertxundiaren berri. Mundu honetan ezagutzen den izaki handiena omen da lertxun amerikar hau, *Populus tremuloides*. *Populus tremula* gure lertxunaren tankerakoa da, baina ipar amerikarra izatea. 43 hektarea inguruko saila bizi du, 430.000 m². Lertxun hau itxuraz lertxundia da: 47.000 bat zuhaitz dira sustraije beretik sortuak, klon sendi bat, alegia.

Irudiz baso bateko zuhaitz multzoa dena, ezaugarri genetiko berak dituzten klonak direla 70eko hamarkadan jakin zen. Harrez gero botanikari eta biologoen pagotxa da. Ikerlariak ditu izurri lertxun honek. 6.000 tona biomasa du, batez beste enbor bakoitzak 130 bat urte ditu, baina denen ama izan zen arbaso hura duela 80.000 urtekoa zela diote. Bizidun zaharrena eta handiena omen.

Sustraiak zabaltu ahala altsumak bota eta enbor berriak hazten dira, denak arbaso ama baten berdinak. Sexurik gabeko ugalketa da, ez dago loreen beharrik; ez lore, ez fruitu, ez hazi. Landare ugari



DAVID WINNIE-CC-BY-SA

Pandoko lertxundia, edo lertxuna, Utah-n.

darabil ugaltze eta kolonizatze bide hau, hurbilekoen artean: *Fragaria vesca* marrubiak, *Robinia pseudoacacia* sasi-akaziak, *Acacia dealbata* mimosak, *Iris sp.* ostargibelar jendeak, *Solanum tuberosum* patatak, *Ficus carica* pikondoak... Zabaltzeko era honek abantaila batzuk baditu, sute baten ondoren erraz berritzeko aukera, enbor bat hiltzen denean beste berdin batek haren lekua hartzea, kanpoko beste landareak ezin sartzea...

Perretxikoak ere lurpeko mizelioa zabaltuz handitzen dira eta izugarrizko sailak hartzen dituztenak ere ba omen dira. Baita itsas alga klonek osatutako gorbeldi haserreak, itzelak. Mediterranioko Posidonia algarenak 100 hektarea ba ote dituen diote.

5.000.000

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera pestizida sintetikoen erabileragatik intoxikatutakoak bost milioi lagun dira. Alemaniako PAN, Pestiziden aurkako sareak dioenez, pozoitzera iritsi gabe, gai hauek buruko mina, goragalea, larruazala minberatu eta baita antzutzea, minbizia eta deformazioak sor ditzakete.



WWW.BRITANNICA.COM

azkonobieta
basogintza lanak

baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)